

Hazkunde hamarkada baten ondoren, jaiotzak %1,8 murriztu ziren 2009.ean

Amatasun-adina, batez beste: 33,1 urte espainiarrak, 28,7 atzerritarrek

Euskal AEn jaiotako haur kopurua: 2009.ean Euskal AEn 20.928 haur jaio ziren, aurreko urtean baino %1,8 gutxiago, Eustaten datuen arabera. 10 urtez jarraian hazi ondoren, hau da jaiotza-tasaren aurreneko jaitsiera.

1976tik aurrera, jaiotzek beheranzko joera nabarmena izan zuten; joera hori, dena dela, moteldu egin zen 80ko urteen amaieran, eta 1994an heldu zen mailarik apalena. 2009ko zifrek gerarazi egin dute 1999an abiatutako jaiotza tasen goraldia.

Arabian bakarrik hazi (%0,5) da jaiotza-tasa; guztira 3.224. Bizkaian 10.540 (%-3,0) eta Gipuzkoan 7.164 (%-1,1).

Jaiotzak mila biztanleko 9,6 izan ziren, 1960ko hamarkadako milako 20 haietatik oso urruti. Kopururik handiena Gipuzkoan da (%10,3), Arabian ondoren (%10,2) eta Bizkaian (%9,1).


2009an haurren bat izandako emakumeen %77k hogeita hamar urte edo gehiago zituen. Talderik ugariena 30 eta 34 urte bitarteko emakumeena da, jaiotza guztien %44. Handituz darrai 35 urtetik gorako amen taldeak (%34); 25-29 urteen artekoena (%16) baino bi aldiz pasa handiagoa da. Amen %7k 25 urte baino gutxiago zituen, 2008an bezalatsu.

2009an amen %15,3 atzerritarrek

Amen %15,3, atzerritarrek; guztira 3.195 haur ekarri zituzten. 501 ama, Marokokoak; 302, Boliviakoak; 294, Kolonbiakoak; 284, Errumaniakoak; 167, Ekuadorkoak; 157, Brasilgoak; 152, Txinakoak.

Emakume atzerritarrek urte gutxiagoekin amatzen dira, Euskal AEn bizi diren espainiar naziotasuna dutenak baino. %56 30 urte baino gutxiagorekin amatzen dira; espainiarren artean %17 besterik ez da.

1. grafikoa: bizirik jaioak, amaren naziotasunaren eta adinaren arabera (%). 2009



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko jaiotzen estatistika

Amen batez besteko adina, 32,4 urte. Espainiarren artean 33,1 urte; atzerritarren artean, 28,7.

Ama lehen erdien batez besteko adina, 31,5 urte.

2009an jaiotzen %31,2 ezkontzatik kanpo izan ziren

2009an ezkontzatik kanpoko jaiotzak 6.531, guztien %31,2; 2008an baino %0,9 gehiago. Arabak eta Bizkaiak Euskal AEk baino ehuneko handiagoak izan zituzten, %32,2 eta %31,4; Gipuzkoak, berriz, balio erlatibo txikiagoak (%30,4). 1990 urtekoa (%7,7) eta oraingoa alderatuz gero, ezkontzaz kanpo jaiotakoak lautik biderkatu dira.

2009an lehen jaiotzak %56 izan ziren; bigarrenak %36 eta hirugarren eta ondorengoak %8.

Erditzeak 20.502 izan ziren: horietatik 20.000, bakunak; 483, bikoitzak; eta 19, hirukoitzak.

2009an jaiotakoen artean, 100 neskatoko 109 mutiko jaio ziren. Mutikoen batez besteko pisua, 3.308 gramo; neskatoen, 3.190.

1. taula: Bizirik jaioak, ama bizi den lurralde historikoaren arabera. 2009

	Euskal AE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira	20.928	3.224	10.540	7.164
Sexua				
Gizonezkoak	10.899	1.685	5.456	3.758
Emakumezkoak	10.029	1.539	5.084	3.406
Jaiotza-hurrenkera				
Lehenengoa	11.780	1.796	6.061	3.923
Bigarrena	7.483	1.146	3.671	2.666
Hirugarrena edo gehiago	1.665	282	808	575
Amaren adinaren arabera				
< 25 urte	1.391	281	747	363
25 - 29 urte	3.325	560	1.520	1.245
30 - 34 urte	9.164	1.357	4.500	3.307
35 - 39 urte	6.061	891	3.233	1.937
>= 40 urte	987	135	540	312
Amaren egoera zibilaren arabera				
Ezkondua	14.397	2.185	7.226	4.986
Ezkongabea	6.531	1.039	3.314	2.178
Amaren nazionalitatea				
Espainiarra	17.733	2.473	8.982	6.278
Atzerritarra	3.195	751	1.558	886

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko jaiotzen estatistika
Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

 Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel.: +34-945-01 75 49 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko JAIOTZEN ESTATISTIKARI buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko JAIOTZEN ESTATISTIKARI buruzko datu-bankua